



## ALKATETZAREN DEKRETUA

**EZTITXU MUJIKA MARIEZKURRENA, ZALDIBIAKO UDALEKO ALKATEAKK**, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

### **IKUSIRIK,**

**ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA** esleitzeko zabaldu den prozesuan bi hautagai aurkeztu dira:

**Jose Ramon Olasagasti eta Ana Lopez andrea, alde batetik  
Bestetik, Maria Carmen Sainz-Aja Lopez andrea.**

Kontratazio mahaiak, 2022k urtarrilaren 13an egindako bileran hautagaiak ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren proposatu du **ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA** esleitzea Maria Carmen Sainz-Aja Lopez andreari berak egin duen eskaintza onartuz.

Horregatik, legeak ematen dizkidan aginpideek erabiliz.

### EBATZI DUT

**LEHENA.- ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA** esleitzea Maria Carmen Sainz-Aja Lopez andreari onartzea

**BIGARRENA.-** Kontratuaren iraupen-epea **URTEBETEKOA** izango da, ustiapenaren xede den barrutiko giltzen entrega-aktaren eta kontratuaren sinaduraren egunaren biharamunetik kontatzen hasita, eta urtebetez luzatu ahal izango da, **BOST URTE** gehiagoz. Baina, bost urte igaro ondoren hala adostuz gero, kontratuaren gehieneko iraupena **HAMAR URTEKOA** izango da, luzapen posible guztiak barne. Horretarako, aldi bakoitza amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez, alde batek besteari ez badio jakinarazten kontratua amaitzeko asmoa duela, isilbidez beste urtebetez luzatutzat joko da, gehienez 10 urtez.

Probaldia 6 **HILABETEKOA** izango da. Hurrengo hilabetean, Udalak balorazioa egingo du, gainditutzat edo ez gainditutzat jota. Erabaki berean gaintitzen ez bada, Udalak kontratua deuseztatzea eta lizitazio-prozedura honetan geratu den hurrengoari eskaintzea erabakiko du.

**HIRUGARRENA.-** Ordaindu beharrko kanona 120 €koa + Bez izango da

**LAUGARRENA.-** Akordio honen berri interesatuei ematea eta esleipedunari eskatzea Foru Ogasunarekin eta Gizarte segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzen dituen ziurtagiriak, bost eguneko epean

Sinatzailea	ALKATEAK EZTITXU MUJIKA MARIEZKURRENA		
Kodea	B 22/0015	Udala	ZALDIBIA
URL	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA13YR8.j8BD">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA13YR8.j8BD</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





ZALDIBIAKO  
UDALA

2021IOLO0001